

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak proiektuak arrakasta izan dezan beharrezkoak diren baliabide ukiezin eta ukigarri guztiak dira. Horregatik, gure enpresak biak izango ditu.

Baliabide fisikoei dagokionez, lokala, sukaldea eta tresneria izango ditugu. Hauek izango dira inbertsio handiena beharko duten aktiboak. Baliabide intelektualak eta giza baliabideak gure langileek denda kudeatzeko eta sukaldatzeko izango dituzten habileziak izango dira.

Horrez gain, finantza baliabideak ere beharko ditugu (maileguak, aurrezkiak). Hauek oso beharrezkoak izango ditugu gure enpresa sortu eta aurrera eramateko, baita beharrezkoak diren inbertsioak egiteko ere.

Ondorioz, gure negozioak ondo funtziona dezan beharrezko dugun funtsezko baliabidea giza-baliabideak dira, izan ere, guretzako oso garrantzitsua baita bezeroekiko harremana oso estua eta pertsonalizatua izatea.

